



Erreseña. 2019an argitaratu zen liburu honetan Angel Viñas, madrildar historiatzaileak, 1936ko Gerraren hasierarekin amaitzen duen Espainiako Igarren Errepublika eraldatzailea eraisteko konspirazioaren hari, bilbadura eta lokarri nagusiak azaltzen dizkigu.

Egileak zintzoki dioen bezala, liburu hau ez da liburu politikoa, baina, badauka ondorio politikorik, ikuspegi ideologiko oso bateri eragiten bait dio. Egilea, horretaz guztiz jabetzen da. Franco eta frankismoaren mitologia txikitzeaz gain (azken momentu arte, konspirazioan Francoren papera bigarren mailakoa izan baitzen), froga enpirikoak erabiliz (Viñasek garaiko lehen mailako ebidentziak, gazteleraz, “evidencia primaria de época” -EPRE- deitzen dituenak) espainiar eskumako posizio ideologiko-politikoari zilegitasuna emateko erabili den kontakizunaren oinarri nagusia erasotzen duelako: Errepublikaren kaosak, atzerriko agentek bultzatutako Iraultzaren mehatxuak eta ezkerren eraso oldarkor eta biolentoek eragin zutela 1936ko Gerra. Erreakzioa, Matxinada, egoera ezin larriagoaren aurrean, beharrezko erantzun zilegia izan zela eta, beraz, ondorengo diktadura luzea eta frankismoan oinarritutako estatu erregimenaren aldaketa, Erreforma, bere kondizio guztiekin, berezko logika duen ildo historiko bakarra dela, eskuma politikoa gidaritza zentzudun eta eskuzabalaren bitartez ibilia.

Angel Viñasek, ordea, konspiratzaile monarkikoen dokumentuak berraztertuz eta horiek arakatutako italiar funtsekin elkartzuz, konspirazioa eta gerra, hautu kontzienteen ondorioak izan zirela erakusten digu; alde aurretik hartutako erabakien ondorioak, lehenengo konspiratzaile taldea, funtsean, jada 1931ko apirilaren 14an bertan, Errepublika aldarrikatzen den egun berean batzen delako lehenengoz, jaio berriko erregimena kentzeko asmoarekin.

Liburua hiru zatitan banatu daiteke. Lehenengoan, konspiratzaileen talde desberdinen loturak zelan sortzen diren ikusiko dugu: monarkikoak, karlistak, eskuma katolikoa, Primo de Riveraren diktaduraren goi administrazio eta erakunde politikoen kideak, arlo horietako militarrik... Elkarren arteko harremanak finkatzen doaz eta berdin gizartearen eremu desberdinak irabazten,

biltzen, bereziki armadaren barnean. Calvo Sotelo, Goicoechea, Sanjurjo, Juan March, Alfonso XIIIgarrena, errege ohia, eta beste asko agertuko zaizkigu lerrootan: aristokraziaren, finantza eta industria enpresaburuen eta lurjabeen nobleziaren kide garrantzitsuenak (oso sarritan IparEuskal Herriko, Miarritze eta Donibane Lohitzuneko euren etxe aberatsetatik)... Gaur eguneko Espainiako (eta Hego Euskal Herrikoan, noski) bizitza ekonomiko, politiko eta sozialean oinorde garrantzitsuak dituzten abizenak. Aldiz, konspirazioaren bideragarritasunaren bermea kanpotik jasoko da, Italia faxistatik hain zuzen. Eta Mussoliniren gobernuaren kideekin harremanak, horren agenteen papera, zein espainiar konspiratzaileen ordezkarien joan etorriak zehaztuko dizkigu Viñasek, mugimendu guzti horiekin batera benetako egitura eta estrategia politiko-militarra eratzea lortzen duten arte: ezkutukoa, itzaletan dagoena, konplotarena; zenbait hedabideen kanpaina sistematikoen bidez, iritzi sozialaren sorkuntza eta erabilpenarena; masa alderdien bitartez, iritzi publiko katoliko, kontserbadore eta monarkikoen mobilizazio ideologiko eta elkartzeko politikorena. 1935eko amaieran, 1936ko lehen egunetan Errepublikaren gobernu kontserbadoreen krisiaren egoeraren inguruan, hauteskunde berriak aurreikusten direnean, eskumako lidergo konspiratzaileak, horrela beharrez gero, bere Rubikon propioa igarotzeko prest dago. Ezkerrak irabazten badu, estatu kolpea egiteko prest dago. Estatu kolpe, matxinada, monarkikoa, faxista eta militarra.

Liburuaren bigarren zatia Franco jeneralaren irudiaren mitifikazioa deseraikitzea du helburu. Konplotaren Francoren zuzendari papera eratzea diktaduraren urteetako lana da. Egileak, diktadorearen garrantzia puzteko, eraikuntza lan horien autoritate oinarriak gezurtatzeko argudioak erakutsiko ditu. Franco, benetan, bigarren mailako aktore izan zen zenbait gertakizunek aukeraz profitatzeko abagunea eskaini zioten arte: Calvo Soteloren hilketak, uztailaren 20an Sanjurjoren heriotzak, bera Kanarietan egoteak, matxinada huts egin eta gerra hasten denean Afrikako armadaren protagonismoak... Mendebaldeko Zentinelaren figura, gerrarrekin eta gero, diktadurarekin moldatuko da.

Hirugarren zatian (16garren kapitulua “Responsabilidades y proyección” eta “Conclusiones” atala osatuta) aurretiaz landutako argudioak bildu eta bi kategoriatan sistematizatu egiten ditu, egileak gerraren gertakizunerako *nahitaezko baldintzak*, eta, *baldintza nahikoak* deitzen dituenak. Egiturazkoak lehenengoak; epe labur eta ertaineko gertakizunen jarraipenari eta horien aurrean hartutako erabakiei lotuak, bigarrenak.

Baldintza nahikoak hiru dira Viñasen ustetan: lehenengoa, konspirazioarekin amaitzeko errepublikar gobernuen ezintasuna; bigarrena, ekintza militarren aldeko kontakizunaren eraikuntza eta hirugarrena, atzerriko potentzia baten laguntzaren adierazleak ziren arma modernoek erosteko. Baldintza horiek noski bere ekintzaileak dituzte, bere protagonista propioak. Ekintzaile aktibo eta kontzienteak, ez ezkerren gehiegikeriei suminez erantzuten dieten jazarritako, lapurtutako justuak.

Egiturazko arrazoen artean, Errestaurazioaren sistema oligarkikoak, saiakera desberdinen bitartez (erregimen zentsataritik, kazikismoaren bidez mugatutako demokrazia eta diktaduraraino) konpontzeko utzi zituen kontraesan sakonak, arrakala sozialak, distortsio politikoak. Arazoak, Errepublikak heredatu eta, posizio erreformistetatik konpontzen ahaleginduko zen, baina, alde aurretik, aldaketa horiek onartezinak zirela erabakita zuten zenbait talde batu ziren, erreforma eta berrikuntza horiek gelditzeko eta Errestaurazioaren jerarkia soziala, ordena, berrezartzeko. 411garren orrialdean azaltzen zaigun bezala, konspiratzaileen lurraldea menperatzen eta ezagutzen zuten Espainia zen eta ez zuten inoiz, hura elkarbanatzeko asmorik (“Su país era la España que conocían y dominaban y nunca estuvieron dispuestos a compartirla”).

Fronte Popularrak irabazi ostean, beraz, ez zegoen atzera bueltarik. Uztailaren 13rako matxinadaren planak oso, oso aurreratuak zeuden. Italia faxistarekin akordioak, aspaldi burutuak. Gertatuko zena gertatzeko ez zen beharrezkoa Calvo Soteloren heriotza, aitzaki propagandistiko bezala ez bada. Uztailaren 16an Balmes jenerala, Kanarietako Gobernadore Militarra, frankisten esanetan, bere pistola erabiltzean hil egiten da (Ángel Viñasek Francok agindutako hilketa izan zela frogatzen ahalegintzen da beste liburu batean). Orduan, Franco, Kanarietako Komandante Militarra Tenerifeko bere tokia utzi eta Kanaria Handira abiatzen da, handik *Dragon Rapide* alokatutako hegazkin famatuan, Marokoko Protektoraturaino. Han, Uztailaren 17an, armadako agintari nagusiak, bere kide eta buruzagiak garbitu ostean eta zenbait erresistentzia gainditu ostean (aireko indarraren pilotu ofiziala den eta bere onarpenarekin fusilatu egingo duten Francoren lehengusu bat ere tartean) Afrikako Armada matxinatu egiten da.

*Reseña. En este libro publicado en 2019, el historiador madrileño Ángel Viñas nos presenta los principales hilos, entramados y vínculos de la conspiración que tuvo como objetivo derrocar la transformadora II República de España, que terminó con el inicio de la Guerra de 1936.*

*Como el mismo autor expresa con sinceridad, este libro no es un libro político, pero sí tiene consecuencias políticas, ya que afecta a toda una perspectiva ideológica. El autor es totalmente consciente de ello: además de desmenuzar la mitología de Franco y el franquismo (teniendo en cuenta que Franco desempeñó un papel de segundo nivel durante la conspiración, hasta el último momento) y valiéndose de pruebas empíricas (las que Viñas denomina “evidencias primarias de época” o EPRE), ataca el fundamento principal del relato utilizado para dotar de legitimidad a la posición político-ideológica de la derecha española. Dicho relato consiste en afirmar que el caos de la República, la amenaza de la Revolución incitada por agentes extranjeros y el acoso y los violentos ataques de la izquierda hicieron estallar la Guerra de 1936, y a su vez, que la reacción y la sublevación ante una situación increíblemente grave constituyeron una respuesta necesaria y legítima. Se afirma, por lo tanto, que la larga dictadura posterior y el cambio de régimen de estado basado en el franquismo y su consecuente Reforma -en todas sus condiciones- constituye la única vía histórica con lógica propia, al tratarse de una vía recorrida bajo la dirección razonable y generosa de la derecha política.*

*No obstante, tras revisar los documentos de los conspiradores monárquicos y cotejarlos con los fondos italianos examinados, Ángel Viñas nos muestra que la conspiración y la guerra fueron fruto de elecciones conscientes, de decisiones tomadas con anterioridad, pues el primer grupo conspirador, formado en su mayoría por monárquicos, se reunió por primera vez el mismo día en el que se proclamó la República, el 14 de abril de 1931, con intención de derrocar el régimen que acababa de ser proclamado.*

*El libro puede dividirse en tres partes. En la primera, veremos cómo surgen los vínculos entre los diferentes grupos de conspiradores: monárquicos, carlistas, la derecha católica, los miembros de la alta administración y organizaciones políticas de la dictadura de Primo de Rivera, los militares ligados a aquellos ámbitos o simpatizantes de estos... Van relacionándose entre ellos y a su vez*

*van ganando y reuniendo a diversos sectores de la sociedad, especialmente dentro del ejército. Calvo Sotelo, Goicoechea, Sanjurjo, Juan March, el antiguo rey Alfonso XIII y muchos otros aparecerán en las líneas de esta primera parte: los miembros más importantes de la aristocracia, dirigentes de las empresas financieras e industriales y terratenientes (muy frecuentemente desde sus majestuosas mansiones situadas en el País Vasco continental, en Biarritz y San Juan de Luz). Apellidos que cuentan con importantes herederos de la vida económica, económica, política y social de la España actual (y del País Vasco peninsular, por supuesto). Sin embargo, la garantía para la viabilidad de la conspiración llegará desde fuera, en concreto desde la Italia fascista. Viñas nos hablará de las relaciones con los miembros del gobierno de Mussolini, del papel de sus agentes y de las idas y venidas de los conspiradores españoles, hasta que consiguen organizar una auténtica estrategia y estructura político-militar: la del complot, que está escondida en las sombras; la de la creación y manipulación de una opinión social mediante las campañas sistemáticas de determinados medios de comunicación; la de la movilización ideológica y la agrupación política de la opinión pública católica, conservadora y monárquica, mediante los partidos de masas. A finales de 1935 y durante los primeros días de 1936, cuando los gobiernos conservadores de la República están atravesando una situación crítica y se prevén nuevas elecciones, el liderazgo conspirador de la derecha está dispuesto a cruzar su propio Rubicón de ser necesario. Si la izquierda triunfa, el liderazgo conservador de la derecha está dispuesto a dar un golpe de estado. Un golpe de estado, una rebelión, monárquica, fascista y militar.*

*La segunda parte del libro tiene como objetivo desmontar la mitificación de la imagen del general Franco. La caracterización del papel de Franco como director del complot es fruto de los años de la dictadura. El autor esgrimirá los argumentos para desmentir los fundamentos de autoridad de aquel esfuerzo dirigido a aumentar la importancia del dictador. En realidad, Franco fue un actor de segundo nivel hasta que ciertos acontecimientos le dieron la oportunidad de aprovecharse de la situación: el asesinato de Calvo Sotelo, la muerte de Sanjurjo el 20 de julio, el hecho de que se encontrase en las Islas Canarias, el fracaso de la sublevación y el protagonismo del ejército de África al inicio de la guerra... La figura del Centinela de Occidente se erigirá con la guerra y posteriormente, con la dictadura.*

*En la tercera parte, compuesta por el capítulo 16 "Responsabilidades y proyección" y por la sección "Conclusiones", el autor recaba los argumentos expuestos anteriormente y los sistematiza en dos categorías, a las que llama "condiciones necesarias para que estalle la guerra" y "condiciones suficientes para que estalle la guerra". Las condiciones de la primera categoría son estructurales y las de la segunda categoría están relacionadas con la continuidad de los acontecimientos acaecidos a corto y medio plazo y las decisiones tomadas ante dichos acontecimientos.*

*A ojos de Viñas, las condiciones suficientes son tres: la primera, la incapacidad del gobierno republicano para acabar con la dictadura; la segunda, la construcción de un relato favorable a la acción militar; y la tercera, la compra de armas modernas, que eran sinónimo de apoyo por parte de una potencia extranjera. Sin lugar a dudas, dichas condiciones tienen sus actores o sus propios protagonistas. Son actores activos y conscientes, y no justos perseguidos, robados y alzados en indignada respuesta a los excesos de las izquierdas.*

*Entre las razones estructurales encontramos las profundas contradicciones, brechas sociales y distorsiones políticas que el sistema oligárquico de la Restauración había dejado sin resolver tras varios intentos (desde el régimen censitario hasta la democracia limitada del caciquismo y la dictadura). La República heredó esos problemas e intentó darles solución desde una posición reformista pero diversos grupos que habían decidido previamente que los cambios mencionados*

*eran inaceptables se unieron para frenar dichas reformas e innovaciones y restablecer el orden y la jerarquía social de la Restauración. Como se nos indica en la página 411, "Su país era la España que conocían y dominaban y nunca estuvieron dispuestos a compartirla".*

*En consecuencia, tras la victoria del Frente Popular no había vuelta atrás. Para el 13 de julio los planes de la rebelión estaban muy desarrollados y los acuerdos alcanzados con la Italia fascista ya habían sido materializados. Para que ocurriera lo que ocurrió no era necesaria la muerte de Calvo Sotelo, a no ser que fuese como excusa propagandística. El 16 de julio fallece el general Balmes, Gobernador Militar de las Canarias, tras haber manipulado su pistola, según los franquistas (en otro libro Ángel Viñas trata de demostrar que se trató de un asesinato ordenado por Franco). Tras ese acontecimiento, Franco deja su puesto de Comandante Militar de Canarias en Tenerife y se dirige de al Protectorado de Marruecos a bordo de un avión alquilado, el famoso Dragon Rapide. Allí, el 17 de julio, después de asesinar a los mandos principales del Ejército, sus superiores y compañeros de armas, y tras vencer alguna resistencia (ente ellos un primo del general Franco, oficial piloto del ejército del aire que sería fusilado con su aquiescencia), el ejército de África se subleva*

*Reseña redactada por la Plataforma Gernika Memoriaren Lekuko y traducida por Maitane Uriarte Atxikallende.*